

XEDAPEN OROKORRAK

OSASUN SAILA

4239

AGINDUA, 2014ko irailaren 25ekoa, Osasuneko sailburuarena, honako agindu honen hutsak zuzentzen dituena: «Agindua, 2014ko ekainaren 2koa, Osasuneko sailburuarena, Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen agindua aldatzen duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuko 18.2.c) artikuluan ezartzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Era horretako hutsak aurkitu dira Osasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 2ko Aginduaren testuan (2014ko ekainaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 117. zk.). Agindu horren bidez, Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen agindua aldatzen da. Hori dela-eta, dagokien zuzenketa egiten da hemen.

III. eranskinean, euskarazkoan zein gaztelaniazkoan, 2014/2756 (71/71) orrialdean, honako paragrafo hau kendu egin behar da:

– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren ardurapeko «L-21 Org» fitxategia erakunde beraren ardurapeko «Y42B kontaktuen agenda» fitxategi berrian biltzen da orain.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 25a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.